



Unibertso euskaldunagoa
gure haurrentzat

Etorkizunean haurrek euskaraz egin dezaten txikitatik euskarazko ingurune batean haztea funtsezkoa da.

Inguru horretan eragiteko ahalmen gehien dutenak gurasoak izanik, Taupa euskaltzaleen mugimenduan gurasoei zein haurrei zuzendutako ekimen berri bat prestatu dugu.

Zer da?

Gure haurren ingurunea euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. Norabide horretan aurrerapausoak eman nahi dituzten familiei **baliabideak, tresnak eta euskarazko espazio berriak** eskainiko dizkiegu eta horretan hasi nahi duten familiei, berriz, **abiapuntu eroso bat**.

Norentzat da?

0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoentzat (edo guraso rola betetzen duten helduentzat), **euskaraz jakin ala ez**.





NOIZ ETA NON EGINGO DA?

Maiatzaren 7tik 17ra, Euskal Herri osoan, ekimena antolatzea erabaki duten herrietan.

ANDOAINEN, NOLA?

Larramendi Bazkunak abian den EUSFERA ekimenari heldu nahi dio herritarren laguntzaz, eta horretarako **10-12 guraso euskaldunen taldea sortu nahi dugu** hamar egun horietarako programazioa diseinatzeko. Bazkunako kideok bideratuko dugu koordinazio guztia eta, Udalaren laguntzaz, baliabideak jarriko ditugu programazio hori aurrera eramateko.

Proiektu honetan parte hartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan inprimaki honen bidez:

<https://labur.eus/andoaingofamiliak>.

Zure laguntza beharrezkoa dugu. Era berean, zure inguruan interesa izan lezakeen lagunik ezagutuz gero, mesedez, anima ezazu parte hartzera.

Informazio gehiago behar izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan harrera@larramendibazkuna.eus edo 688 718 916 telefonoan (Nago).

